

“LEZOKO SORRERA, PERTSONAIK ETA SINBOLOAK”

1.- Lezo herriaren sorrera eta bere izenaren jatorria

Aintzinatean, euskal lurraldeak jaiotzear zeuden garaietan Hondarribia, Hendaia, Irun, Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia hartuz, eta Donostiako ateetaraino iritsiz, Oiarso (edo Oiartzun) izeneko eskualde zabala ezagutzen zen. Lezo sortu gabe zegoen oraindik, eta gaur bereak diren lurretan arrantzale eta artzaien txabola batzuk, besterik ez zeuden. Badirudi gure lurretara etorritako lehenengo biztanleak, Nafarroako Bortziri aldetik etorritako baskoien leinuko artzaiak izan zirela, eta geroxeago Gipuzkoa aldetik etorritako barduliarrak. Aipaturiko bi euskal leinuak Oiarso bailaran zehar zabaldu ziren, herrixka ezberdinak sortuz.

Bi giza talde horiei gehitu behar zaie hirugarren bat, gaskoiena. 1.100 eta 1.200 urte- en inguruan, eta gaur egun oraindik ezagutzen ez ditugun ezkutuko arrazoiak direla eta, itsasaldeko gaskoi franko Euskal Herrira jeisten hasi ziren, Lapurdi aldera lehendabiziz, eta Gipuzkoako kostaldera geroagoz, batez ere Donostia eta Hondarribia artean dagoen itsasertzera. Batzuek diotenez, Frantzia eta Ingalaterraren arteko gerra luzea izan zen emigrazio honen arrazoia. Beste batzuek berriz, garaiko gosete eta pobrezia defendatzen dute arrazoi nagusizat. Merkatalgune berrien beharra ere, askoren ahotan dagoen bitartean. Bata edo bestea, edo danak nahasirik, auskalo! gauza da milurteko honen bigarren



LANDER ZURUTUZA

Badirudi, gure lurretara etorritako lehenengo biztanleak, Nafarroako Bortziri aldetik etorritako baskoien leinuko artzaiak izan zirela.

Lezok, oso
herri pobrea eta
umila denez,
oso gosete
haundiak
ezagutu ditu.
Hortik omen
datorkie bere
biztanleei,
aldameneko
herrietakoek
emandako
goitizena
"trapujaleak"
alegia.




hirugarren ehunkaden artean izugarrizko gaskoi emigrazioa eman zela Gipuzkoako kostaldeetara, gehienbat Oiarso izeneko bailarara. Oiarso eskualdeko itsasaldea lintzurez beterik omen zegoen, Lezo horietako batean zegoelarik, eta itsasoari lurra irabazi nahian, Nafarroako erregeek hasiera batean eta Gaztelakoek geroxeago, gaskoiak ekartzeari ekin zioten hauek oso trebeak baitziren lintzuren legortze lanetan. Hortarako, lurra eta belarra, uraren bitartez lotuz, eta hormak eginez, "lazon" edo "lezon" (euskaraz -lezoi-) izeneko sistema zerabilkitelarik.

Sistema hau oso garrantzi haundikoa izan zen Lezoren sorreran, lehenengo biztanle talde zabalak gaskoiek legortutako lintzura desagertu ondoren sortutako lurretan kokatu baitziren. Gaskoiek legortze lanerako erabilitako sistematik omen datorkio herriari, gaur daraman izena, baita herriko familia nagusia izan zen LEZOHANDIARI ere. 1203. urtean, eta Gaztelako Alfonso VII.ak emandako agiri berezi baten bidez, Hondarribiak bere udala lortu zuen, eta agiri berean esaten denez, erregeak Pasaiako badian dagoen itsasadar batetan, eta beti Hondarribiko barrutiaren barruan, unibertsitate mailako bat antolatzeko baimena eman zion GILLERMO LAZONekoari hitz hauek erabiliz?

"ITEM DONO VOBIS
GUILLELMUN DE LAZON
ET SOCIOS SUOS, UT SINT
VESTRI VICINI"

Badirudi aipaturiko Gillermo Lazoneko hori oso lotua zegoela gaskoiek erabilitako lazoi sistemarekin, eta hortik aurrera bera eta bereak -LEZOHANDIA leinua hain zuzen-



Lezoko untzioetatik monstrooz beteriko balizko itsasoetara joandako itsasontzi ugari sortu ziren.

bertako agintari gisa finkaturik gelditu zirela. Hondarribia merkatal arrazoiak zirela eta jaio zenez, badirudi bere azpian zegoen Lezoko unibertsitatea osagarri gisa erabilia izateko sortu zela. Orduz geroztik, Lezok oso harreman estuak izan zituen, Hondarribiko barrutian ere, zegoen Pasai Donibanerekin. Diru bera zerabilkiten, Eliz Barruti eta Kalbido berdinetan sarturik zeuden, ospitale eta eliza bera zeuzkaten, eta biak txandatzen ziren Jaizkibelgo larreetaz baliatzeko orduan. Piskanaka piskanaka banatuz eta bereiztuz joan ziren, 1614. urtean Pasaiak, Hondarribiaren agintapetik atereaz, bere udala lortu zuen arte. Irunek 1776. urtean gauza bera lortu zuen, eta ordutik Lezo, unibertsitate gisa, Irungo barrutian gelditu zen. 1805.eko irailaren 26an kaleratutako erret agiri batean esaten denez, bai Nafarroak eta bai Hondarribiak ekonomi garapen zabala eduki zezaten, Hondarribia, Irun, Pasai Donibane eta Lezo, Gipuzkoako lurraldetik kanpo eta Nafarroako erresumaren barruan gelditu ziren. Eta honela izan zen 1814. urterarte. Lezo ez zegoen ados neurri honekin, lehentasun ekonomiko guztia Hondarribiri ematen baitzitzaien, eta makina aldiz eskatu zuen bere bereizketa bai Nafarroatik eta baita Hondarribitik ere. Azkenik, 1818. urtean Lezok bere udala lortu zuen. Une zehatz hartan, Lezok, portugintzan edo nekazaritzan aritzen ziren 120 bat familia zituen. Gillermo Lazonekoaren garaietatik bere burua udalerrri gisa antolatu ahal izan zuen arte, seirehun urte igaro izan ziren.

2.- LEZOAR PERTSONAIK HISTORIAN ZEHAR

- GILLERMO LAZONEKO.- 1203. urtean Lezo fundatu zuena.
- MIGEL ETA JOAN ALKAIAGA, anaiak.- Navas de Tolosan burukatu zutenak.
- DOMINGO VILLAVICIOSA.- XVI. mendean Flandriara joana itsasarmada baten almirante gisa. Flandrian hil zen.
- JOANES VILLAVICIOSA.- Ozeanoko itsasarmada baten jenerala izendatutakoa
- MARTIN VILLAVICIOSA.- Itsasgizon ospetsua, 1582an frantsesekin izandako itsas gudate batean hilik.



LEZOKO PERTSONAIK: 1.- Gillermo Lazon/ 2.- Joanot Villaviciosa. / 3.- Jaimes Zamora / 4.- Domingo Arizpe / 5.- Lope Martinez Isasti / 6.- Leon Iriberry / 7.- Frantzisko Gaintza . 8.- Jorge Etxeberria / 9.- Eugenio Otsoa / 10.- Jon Garbizu "Zubigarr" / 11.- Daniel Garbizu "Iruzubi" / 12.- Elias Salaberria / 13.- Antonio Pildain / 14.- Joan Joxe Sarasola "Lexo" / 15.- Tomas Garbizu / 16.- Ramoni Perez Azkarate "Gaintxurizketako Sorgina" / 17.- Polentzi Gezala / 18.- Xanti Zabala " Lexo" / 19.- Patri Urkizu / 20.- Xanti Espina.

- JOAN LEZOKO.- Itsasgizona, kortsarioen aurka borrokatuz hilik suertatu zena.
- JOANOT VILLAVICIOSA.- Jaiotzez sanjuandarra baina Lezon bizi izan zen Erret Itsasarmadaren almirantea.
- MIGEL ETA ESTEBAN VILLAVICIOSA anaiak.- Aurrekoaren semeak. Lehenengoa 1573an hil zen olondresekin borrokatuz, eta bigarren Erret Itsasarmadaren almirantea izatera iritsi zen.
- JOANES LEZOKO.- Ezagutzen dugun lehenengo balearrantzale lezoarra. 1570. urtean bere untzia Ternuako uretan hondoratu zen, eta bai bera eta bai bere tripulazioa osoa izeberg baten gainean salbatu ziren.
- JAIMES ZAMORAKO.- Pilotu nagusia Espainiako itsasarmadan. Felipe II.aren garaian "Mareas derrotas" izeneko itsas tratatua idatzi zuen.

- DOMINGO ARIZPE.- Galeoi baten kapitaina eta pilotu nagusia. 1587. urtean hil zen Cadizen, Francis Drake kortsari ingelesaren erasoaldi batean.
- MIGEL ITURAIN.- Pilotu eta itsasgizon ospetsua. Espainiar "Itsasarmada garaiezinan" ibilitakoa. Ekaitz batean hil zen 1597. urtean.
- ONOFRE NAGUSIA.- Ofizio Santuko familiarra eta administrazio publikoko karguduna. 1600. urtean hil zen.
- ONOFRE TTIKIA.- Santiagoren Ordeneko zalduna, eta Erret Galoietako hornizio eta materialen gordelari eta zaindaria. 1612. urtean zendu zen.
- LOPE MARTINEZ ISASTI.- (1560 -edo 70- -1612) Apaiza, teologian doktore, San Joan Bataitzailearen Parrokiako benefiziario eta presbiteroa. Idazle eta historiagile ospetsua. Bere lanik garrantzitsuenak hauexek direlarik: "Compendio historial de la provincia de Guipuzcoa" eta "Relación de las malélicas de Cantabria".
- LEON IRIBERRI.- Kortsaria. 1662. urtean itsasoan galdu zen, Cadizerako bidean.
- JOANES BIDARTE.- Andreone etxeko jauna. Holandan hil zen preso 1641. urtean.
- FRANTZISKO GAINZA.- 1658ko azaroaren 7an jaioa Gaintxurizketako Gaintza baserrian. Apaiza, Irungo Parrokiako erretorea, idazlea eta historiagilea. "Historia de la Universidad de Irun-Uranzu" izeneko liburua idatzi zuen.
- JORGE ETXEBERRIA.- Pilotua eta kapitaina. Toulon-go portu frantsesean hil zen 1743. urtean.
- EUGENIO OTXOA.- (1815-1872). Literaturgile, elaberrigile eta margolaria. Liburu franko idatzi zuen, bai espainieraz eta bai frantseseraz.
- AXENXIO LASA.- (1889-1967). ELAko idazkari nagusia izana eta hizlari trebe bezain ospetsua.
- JON GARBIZU "ZUBIGAR".- (1893-1930). Euskal idazlea.
- DANIEL GARBIZU "IRUZUBI" (1897-1984). Aurrekoaren anaia. Olerkari, bertsolari eta abeslaria.
- ELIAS SALABERRIA.- 1954ko uztailaren 14an hil zen pintore handia.
- ANTONIO PILDAIN.- Parlamentari nazionalista izana eta gero Francoren garaian Canariasko gotzaia. 1973. urtean zendu zen.
- JUAN JOXE SARASOLA "LEXO" (1897-1952). Bertsolaria, Irurtzun baserrian jaioa.
- HIPOLITO GEZALA.- Musikari eta organojole handia. 1958. urtean hil zen.
- TOMAS GARBIZU (1901-1989). Zubigar eta Iruzubiren anaia. Musikaegile ospetsua.
- RAMONI PEREZ AZKARATE.- "Gaintxurizketako Sorgina" ezizenez ezagunagoa. Errenteriarra izan arren Gaintxurizketan bizi izana. Tarot irakurtzaile famatua. 1990eko apirilaren 25ean hil zen 64 urte zituelarik.

- POLENTZI GEZALA.- 1919. urteko azaroaren 20an jaiotako txistulari ospetsua.
- XANTI ZABALA "LEXO".- Gaintzurizketa baserriko seme bertsolaria.
- PATRI URKIZU.- Euskal idazle oparoa. 1946ko irailaren 2an jaioa.
- XANTI ESPINA ANDUEZA.- Musikari eta musikagile gaztea. Lezoko Kontserbatorioko zuzendaria. Lezoar ihauteriko soinuen egilea. 1958ko maiatzaren 19an jaioa.

Lope Martinez Isastik,
XVII. mendean.
Ternua aldean
balearrantzan
ibilitako lezoarren
herri ematen digu.



LANDER ZURUTUZA

3.- LEZOKO HERRIAREN SINBOLOAK

Herri bakoitzak bere nortasun berezia duenez, bereziak ditu ere, nortasun horren ager-garri diren sinbolo edo ikurrak: armarrria, bandera, koloreak, jazkera folklorikoa eta himnoa hain zuzen.

- 1.- ARMARRIari dagokionez, Pablo Gorosabel, XIX. mendeko gipuzkoar historiagile ospetsuak honela dio:

“Lezoko armarrria urre kolorezkoa da, bere beheko aldean, zilar eta urrezko olatuak daramazki, eta hiru hagin ur gainean. Hagin bakoitzaren gainean lertxun hosto berde bana eramaten duelarik”

Armarrri gainean ipintzen den koroari dagokionez, badirudi markestiarra dela, eta agian Lezok bertako markesen menpe igarotako denboraldi luzea nahi digu grafikoki agertarazi.

- 2.- Lezoko BANDERAK, armarrrian oinarriturik dagoenez, bere koloreak hartu ditu: zuria eta urrea.

- 3.- Heraldikari jarraituz zuria eta urrea herriko kolore gisa hartu behar ziren arren gaur. Lezoko KOLOREAK zuri-berdeak direla esan beharra dago. Bere garaian famatua izan zen Ipintza zalditegi lezoarrak bi kolore hauek zerabilzkien ezaugarri gisa, eta lortutako ospeak bi kolore hauek Lezorekin lotzea eragin zuen.
- 4.- Duela urte gutxi, eta "Lezotarrak" izeneko merkatal taldearen bitartez lezoar JAZKERA FOLKLORIKOA sortu zen, berehalaxe gure artean zabaldu zena. Honelakoa da: alkandora, galtza eta espartin zuriak, txapela, gerriko, lepozapi eta lokarri berdeekin konbinaturik.
- 5.- HIMNOA bertako semea eta musikaegile ospetsua izan den TOMAS GARBIZUK egin da. 1982ko abenduaren 18an Lezoko Unibertsitateko Udalak omenaldia egin zion, eta ordain gisa, Garbizuk, ordutik himnotzat harturik izan den "LEZOKO HERRIA" izeneko ereserkia eskeini zion Lezoko herriari.

LEZOKO HERRIA

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1.- Itsaso gainetik
Jaizkibel mendia,
mendi gibelean,
Jaizkibel oinetan
Lezoko herria.</p> | <p>4.- Gora gora Lezo,
hain izen haundiko.
Gure aurrekoen
sorleku garbia,
euskaldun herria.</p> |
| <p>2.- Hemen biltzen dira
euskaldun jendea,
aintzinetik baita
gutziz ezaguna
Gurutze ahalduna.</p> | <p>5.- Izan lagun arteko
herri maitaleak.
Zahar eta gazte,
haur ta emazte,
egin dezagun bat.</p> |
| <p>3.- Ezker, eskubi
zelai, baserri,
ondorengoan oinarri.
Ohitura zaharrak,
agurgarriak,
Herriko seme
gizon argiak.</p> | <p>6.- Eguna bezain laister
zabal atariak.
Agur zuri
ta zuk neri,
lagunurkoari.
Agur, agur, agur
agur t'erdii!!!</p> |

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN